



PRENTSA-OHARRA

Animaliak Hartzeko Zentroak urtero egiten duen kanpaina txakurrak amorruren kontra txertatzeko eta identifikatzeko astelehenean, maiatzaren 28an, hasiko da, eta ekainaren 2an bukatuko

Iruñean erroldatuta daudenek beren zakurrak eramaten ahalko dituzte astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta larunbatean, 11:00etatik 14:00etara.

Hurrengo astelehenean, maiatzaren 28an, Animaliak Hartzeko Zentroak egiten duen amorruren kontrako txertoa jarri eta txakurrak identifikatzeko urteroko kanpaina hasiko da, eta ekainaren 2an amaituko. Udalak zerbitzu hau eskaintzen du Iruñean erroldatuta dauden pertsonen begira. Kanpainaz arduratuko diren albaitariek honako ordutegi hau izango dute arta emateko: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara. Argibide gehiago nahi izanez gero, 948420996 telefonora edo 010 Herritarrendako Arreta Telefonora deitu behar da (948 420100 telefonora, mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero). Legeak nahitaezkoztat jotzen ditu bai txertoa jartzea bai identifikazioa.

Animaliak Hartzeko Zentroa Unibertsitateko errepidean dago, Nafarroa etorbideko zubiaren ondoan. Nafarroako Unibertsitateko errepidetik sar daiteke, Zaragozako etorbidetik etorritik gero, zubira iritsi aurretik, hain justu. Ezkirotz kaletik ere heldu daiteke. Txertoa jarri eta mikrotxip bidez identifikatzeagatik 41 euro ordaindu behar dira; zakurrak identifikatuta badaude eta txertoa soilik jarri behar bazaie, 21 euro; eta bakarrik identifikatzeko mikrotxipa jarri behar bazaie, 31 euro. Tasa horiek zentroan bertan ordaintzen dira, eskudirutan edo banku-txartelaz.

Legearekin bat, nahitaezkoa da 4 hilabete baino gehiagoko zakurrei bai txertoa bai identifikazioa jartzea

Bai mikrotxip bidez identifikatzeko ebakuntza egiteko bai txertoa jartzeko, animalia arduradunek NANA eraman beharko dute, eta dagoeneko identifikaturik dauden zakurrei txertoa berriro jartzeko, egoera hori egiaztatu beharko dute, animalia identifikatzeko txartela erakutsita. Zakur guztiak katez edo sokaz loturik eramanen dira, eta jabeek muturrekoa jarrita eramanen dituzte, baldin eta zakurraren izaerak hala eskatzen badu edo arriskugarriak izan daitezkeen zakurtzat sailkatuta badago.





Legearen arabera, lau hilabete bete dituzten txakur guztiek derrigorrean eduki behar dute amorruren aurkako txertoa jarrita; eta Nafarroan, gehienez bi urtekoa da txertoen arteko epea. Halaber, 370/1992 Foru Dekretuaren arabera, lau hilabete baino gehiagoko zakur guztiek mikrotxip bidez identifikatuta egon behar dute. Legezko betebeharrak horiek urratzeagatik 61 eta 601 euro arteko zehapenak ezar daitezke. Amorrua nerbio-sistema zentralerako gaixotasun akutua da, birus batek sortzen du, eta listuaren bidez kutsatzen da. Ugaztun askori erasaten dio, gizakiak eta zakurrak barne, eta urgentziaz tratatzen ez bada, heriotza eragin dezake.

ZAKURRAK AMORRUAREN KONTRA TXERTATZEKO ETA IDENTIFIKATZEKO KANPAINA

- **Noiz:** maiatzak 28 – ekainak 2. Astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara, eta larunbatean, 11:00etatik 14:00etara.
- **Non:** Animaliak Hartzeko Zentroa. (Unibertsitateko errepidean, Nafarroako etorbideko zubiaren ondoan. Zaragozako etorbideetik edo Ezkirotz kaletik sar daiteke.)
- **Prezioa:** txertoa jartzea, 21 euro; mikrotxip bidez identifikatzea, 31 euro. Txertoa jartzea eta mikrotxip bidez identifikatzea: 41 euro.
- **Norentzat:** txakurrak dituzten Iruñeko biztanleei zuzendua. Legearen arabera, 4 hilabete baino gehiagoko animaliek derrigorrean egin behar dute izapidea.
- **Argibide gehiago:** 948420996 telefonoan edo 010 Herritarrendako Arreta Telefonoan (948420100 telefonora, mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

Iruñean, 2018ko maiatzaren 25ean

